

PLAZA BERRI

ZIZURKILGO HERRI ALDIZKARIA

11-12-20 1.ALEA

UDAL BERRIA ABIAN

4. ORR.

BATZORDE
INFORMATZAILEEN
DEIALDIA

3. ORR. ▶

HIRIGINTZA
PROIEKTUAK
AZTERGAI

8. ORR. ▶

GERRA ZIBILAREN
ONDORIOAK
HERRIAN

10. ORR. ▶

Zailtasunei aurre eginez, elkarlanean

2

Herrikide, eskura duzu Plazaberriren ale berria. Irailean azaldu bezala, hiru hilez behin jasoko duzun herri aldizkaria da Plazaberri. Gabon garaiekin bat eginez datorkigu oraingoa.

rrean da Zizurkilgo Udala. Bildu kargura iritsi eta egindako auditoriaren emaitzek Udalaren egoera ekonomikoaren argazki ezin beltzagoa utzi digute. Zorrraren tamaina izugarria da, eta gainera, Udalaren ohiko gastua asko igo da azken urteetan. Gaiaren garrantziaz jabetuta, berau duzue ale honetako gai nagusia.

Zorra eta arazo ekonomikoak erakunde askoren ahotan dira, baina badute dirua lan erraldoietarako, AHT-rako esaterako. Zizurkilen azpie-

gitura horrek berak ekarriko duen suntsitzeaz gain, lanak hastear direnean jakin du Udalak Zizurkil goia erdiz erdi zeharkatu nahi duen errepide bat eta betelana ere egin nahi dutela herrian. Gai horri ere heldu diogu.

Azken hiru hilabeteetara begira jarrita berriz, uholdeek utzi digute argazki ikuasgarrietako bat. Ezbehar meteorologikoak utzitako kalteak aztertuko ditugu. Eta noski, herritarrek ere badute Plazaberrin euren txokoa. Besteak beste, haur jaioberrien inguruko ekimen interesgarri baten berri jaso dugu.

Amaitzeko, mezu bat: Orri hauetako askok zapo-

re mikatza utziko dizueten arren, Zizurkilgo Udalak sinesmen osoa du, herritarrekin elkarlanean, aurrera egin dezakegula. Martxan diren hainbat batzorde dira horren adibide. Elkarlana izango da gure bidea, eta azaroko hauteskundeen emaitzek ere indartu egin gaituzte bide horretan. Eskerrik asko, beraz.

Eguberri zoriontsuak eta urteberri hobea opaz agurtzen gara, bereziki gure artean ez daudenak gogoan ditugula. 2012an jarrai dezagula Zizurkil hobe bat eraikitzen. Zailtasunei aurre eginez, elkarlanean.

Ante las dificultades, trabajo en equipo

Coincidiendo con las fiestas navideñas llega a sus casas Plazaberri, la revista trimestral del ayuntamiento de Zizurkil. Aunque, sean estos días entrañables, el ayuntamiento tiene la obligación de informar sobre la realidad del consistorio. La auditoría realizada en los últimos meses, ha dejado en evidencia

la más que precaria situación económica del ayuntamiento. Este es el tema principal de Plazaberri.

Sin embargo, también recibirán información sobre las consecuencias de las obras del TAV que están a punto de comenzar, y sobre las últimas inundaciones.

Son muchas las dificultades, pero el ayuntamiento está convencido de poder superarlas con la ayuda de los y las zizurkildarras, como demuestran las comisiones que están en marcha. Nos despedimos con el deseo que tengan unas felices fiestas y un próspero año nuevo.

Baina gehienontzat garai atsegin eta gozoak diren hauetan ere, informatzea lehenatasun duelako, errealitate gordinaren berri eman beha-

GAI NAGUSIA

Udalaren egoera ekonomiko larria zenbakitan

Asignazioak eta asistentziak	Orain			Lehen		
	kopurua	€	guztira	kopurua	€	guztira
Talde politikoa	3	120	360,00 €	3	171	513,00 €
Zinegotziak	11	110	1.210,00 €	11	171	1.881,00 €
Batzordetako lehendakaria izateagatik	10	100	1.000,00 €	10	327,75	3.277,50 €
Batzarkidea izateagatik	10	50	500,00 €	10	52,25	522,50 €
		hilero	3.070,00 €		hilero	6.194,00 €
		urtean	36.840,00 €		urtean	74.328,00 €

		Orain			Lehen		
		kopurua	€	guztira	kopurua	€	guztira
Pleno bileratara joateagatik	11 zinegotzi	1	0	- €	1	71,25	783,75 €
Batzorde informatzaileko bileratara joateagatik	11 zinegotzi	1	0	- €	1	28,5	313,50 €
Beste bilkuratara joateagatik (kontratazioa mahaiak, hautapen prozesuak, mankomunitateko bilkurak...)	11 zinegotzi	1	0	- €	1	28,5	313,50 €
					hilero	1.410,75 €	
					urtean	16.929,00 €	

Guztira	Diferentzia		Orain		Lehen	
	hilero	urtean	hilero	urtean	hilero	urtean
	-4.534,75 €	-54.417,00 €	3.070,00 €	36.840,00 €	7.604,75 €	91.257,00 €

oharra: kalkuloak suposatuz, pleno bat hilero, batzorde bat hilero.... Eta konparatzeko bi legegaldietan kopuru berdinak jarrita

Zizurkilgo Udalaren egoera ekonomikoaren argazkia esku artean du Bilduren udal taldeak, eta ezin esan 2.879.080 €ko zorrak baikor egoteko arrazoiak ematen dituenik. Gainera, Foru Aldundiko funtsetik jasotzen den diru-sarrerara %5 jatsiko da 2012an. Errealitate honi erantzuteko aurrekontuak prestatzen ari dira hilabete hauetan udal ar-

duradunak. Ezinbestean, gasetuen murrizketak egingo dira, eta zergen igoera ere onartuta dago, beti ere KPI indizearen baitan. Zor gehiago pilatu gabe, herria hobetzen jarraitzea da erronka.

Irailean Plaza Berrin iragarri zuten auditoria ekonomikoaren emaitzei buruz galdetu diogu Nerea Lizarraga alkateorde eta ogasun zinegotzia-

ri: "Txosten definitiboa oraindik esku artean ez badugu ere, auditoria egin duen LKS enpresak ondorio nagusiak jakinarazi dizkigu. Ondorio horiei esker, orain bai, ikus dezakegu udalaren egoera ekonomikoaren benetako argazkia. Izan ere, auditoria horren bidez ohartu gara orain arte egiten ari zen kontabilitateak ez zuela erabat errealitatea islatzen,

akats batzuk tarteko. Hori bai, iruzurrik ez zela egon ziurtatu dugu".

Errealitatea datu batean sinplifikatu ezin bada ere, Zizurkilgo udalaren kasuan nahiko argigarria da Lizarragak emandako kopurua: "Legealdiaren hasieran, 2011ko uztailean zehazki, 2.879.080 €ko zorra zegoen, garai bateko ia 500 miloi pezetako zorra. Eta zor

Udalaren egoera ekonomiko larria zenbakitan

izugarri horri gehitu behar zaio, atzeratutako gastuak ordaintzen ari garela. Legealdia hasi genuenetik 2009ko eta 2010eko hainbat gasturi aurre egiten ari gara”, argitu du.

2.879.080€ko zorra aipatu dugu, baina zehaztu behar da hori epe luzerako maileguetan dagoen zorra dela, interesak kontuan hartu gabe. Urtero interesetan 90.000 € gehiago ordaintzen ditu udalak, eta zorraren amortizazio edo ordainketetan 270.000€ inguru joaten dira. Honek esan nahi du, urtero, batazbestea, 360.000 € inguruko gastua aurreikusi beharra daukagula aurreko urteetan jasotako maileguei aurre egin ahal izateko”, borobildu du Lizarragak.

Mailegu bat urtero

Udalak, momentu honetan epe luzeko hamar mailegu ditu, entidade ezberdinek emanak. “Gehienak Kutxan daude, baina badira Euskadiko Kutxan, La Caixan eta Caja Ruralean ere. Mailegurik zaharrena 1998koa da eta berriena 2010ean eska-

tuta dago. Azpimarratzeko datu bat ere bada: Azken bi legealditan, 2003tik 2010era arte, urtero eskatu da mailegu berri bat. Esan beharrik ez dago jokaera hori arduragabea izan dela eta ez dela jasangarria” Egoeraren larriaz jabetzeko beste bi datu: Zizurkilen zorra Udalaren urte osoko aurrekontuaren parekoa da. Biztanle kopuruarekin zatituko bagenu berriz, (2008ko datua: 2750 biztanle) 1046 €ko zorra ateratzen da biztanleko. Honela, Gipuzkoako udal zorpetuenen artean, puntan dago Zizurkil.

Egoera zuzentzeko zein neurri hartuko ditu udalak? “Zorrari aurre egiteko tresna nagusia aurrekontuak izango dira”, erantzun du alkateordeak, “baina zenbait neurri legegintzaldia hasi bezain pronto jarri genituen indarrean. Batetik alderdi politikoei udalean duten ordezkartzaren arabera ematen zaien diru-saria nabarmen murriztu genuen, eta zinegotziek plenoetan eta batzordeetan parte hartzeagatik jasotzen zuten dieta berriz, osorik ken-

du da. Argi dugu ezin dugula beste aldera begiratu, neurriak hartu behar ditugu. Adierazgarria da ordainsarien murrizketa onartu genuen egunean kritika gordinak entzun genituela Udala egoera honetan utzi duen EAJren, eta PSEren alde-tik”. Ordainsariak murriztuta, aurreko legegintzaldiarekin alderatuz, 54.000 € aurreztuko dira urtero (Ikus. taula).

Gastu finkoak murriztea helburu

2012ko aurrekontuak egiten buru belarri ari da une honetan Zizurkilgo Udala. Bilduren helburua aurrekontu parte hartzaileak egitea bada ere, oraingoan prozesu hori nahi bezain beste ezingo dela landu azaldu du Lizarragak, benetako egoeraz jabetzeko denbora behar izan delako eta 2012ko aurrekontua lehenbailehen onartzea ezinbestekoa delako. Hala ere, aurrekontuak batzorde informatiboetako ekarpenak kontatuan hartuta ari dira egiten eta gainera, behin betiko onartu aurretik, herri batzar

bat deituko dela aurreratu du Lizarragak.

2012 urteko aurrekontuak kolore gorritz idatzita datoz, luze zabal aipatu dugun zorretatik haratago, udalaren diru-sarrerak ere murriztu egingo baitira. “Udaletxearen diru-sarrera nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiko funtsetik jasotzen dena da. 2012ari begira, Aldunditik jaso beharreko kopurua %5 jaitsiko da, kopurua 1.511.065 €ra murriztuz. Honek, aurrekontua gutxienez %5a jaistera behartzen du udala. Baina hortik gora ere murriztu beharko da, bideragarritasunaren bidetik jo nahi izanez gero”.

Murrizketen arloan, datozen urteetako helburu nagusia gastu finkoak murriztea da. Izan ere, Lizarragaren hitzetan “ia aurrekontu osoa eramaten dute gastu horiek. Besteak beste, energia hornidura edota mantenimendu zerbitzu ezberdinak sartzen dira zaku honetan. Oso zaila da alor horretan murrizketak egitea, baina beharrezko azterketa guztiak egingo ditugu kostuak

Presupuestos ajustados a la dura realidad económica

Aunque la realidad no se pueda simplificar en un dato, en el caso del Ayuntamiento de Zizurkil resulta bastante clarificadora la cifra que nos ha dado la teniente alcalde Nerea Lizarraga: “En julio del 2011 la deuda del consistorial era de 2.879.080 €, casi 500 millones de pesetas. Esta deuda corresponde a las hipotecas de largo plazo, pero además, desde que comenzó la legislatura esta-

mos haciendo frente a los gastos todavía sin pagar del 2010 y del 2009”. El Ayuntamiento tiene, hoy en día, 10 hipotecas en diferentes entidades bancarias. “El préstamo más antiguo es del 1998 y el más reciente se requirió en el 2010. Un dato revelador: desde el 2003 hasta el 2010 todos los años consta la petición de una hipoteca nueva”, aclara Lizarraga. Todo esto supone un gasto anual de

90.000 € en intereses sin contar la amortización, que requiere 270.000 € al año.

La deuda de 2.879.080€ es equiparable al presupuesto de un año del consistorio zizurkildarra. Si lo dividimos con el número de vecinos supondría que cada zizurkildarra tiene una deuda de 1046 €. Esta claro, que la situación es más que difícil, pero, ¿cuál es la solución?. “Los presupuestos del

2012 serán la herramienta para empezar a combatir la situación”, aclara Lizarraga. Aún así, Bildu no ha esperado a finales de año para recortar gastos. “Hemos reducido notablemente la cantidad que se aportaba mensualmente a los partidos políticos representados en el Ayuntamiento, y de la misma manera, se han eliminado las dietas que se les pagaba a los ediles por la asistencia a ple-

2011ko aurrekontuak: "Ez buru eta ez hanka"

ahal den neurrian murrizteko". Gastu finkoek aurrekontuaren ia portzentaia osoa eramaten dutenez, eurak murriztea lortzea da etorkizunerako bide eraginkorrena. Dena den, gastu aldakorrek ere aztertzen ari direla jakinarazi du, "batzordez batzorde dauden proiektuak behatu eta lehentasunak jartzten ari gara", azaldu du Lizarragak.

Egoera beltza izanik ere, honek ez du esan nahi herrian aurrerapausorik emango ez denik. "Inbertsioak egin egingo dira, instituzio ezberdinetatik jasotako diru-laguntzei esker. Oraitxe bertan 11 zizurkildar langabetu kontratatuko ditu udalak 6 hilabeteetarako Eusko Jaurlaritzak ahalbidetutako laguntza programa bat baliatuz. San Millango uren sareak osorik berritzeko bigarren fasea ere egingo da Udala Aldundiarekin akordio batetara iritsi ondoren. Udal teknikaria onak ditugu, instituzioetako diru-laguntza programak oso ondo ezagutzen dituztenak. Argi daukagu beraiekin eskutik helduta joan

behar dugula".

Zerga eta tasek %3ko igoera

Egoerari erantzuteko beste neurria zerga eta tasei KPlaren igoera aplikatzea izan da. Orokorrean %3 igo dira zergak, salbuespenak egon badauden arren. Alkateordeak aipatu duenez, "badaude igoerarik izan ez duten zergak, eta badira baita ere, %3 baino gehiago igo direnak". Aplikatu duten irizpidea hau izan da: "Gutxi dutenen eskubideak bermatzea". Asmo horrekin zerga batzuk mantendu edota kasu gutxi batzuetan zertxobait jaitsi dira. Gehiena daukatenei kobratu beharreko zergak dira nabarmen igo direnak. 20 zaldi fiskal baino gehiago dituzten autoen gaineko zerga da adibideetako bat.

2012ko aurrekontuak urte hasieran onartuko direla aurreratu du Udalak. Nerea Lizarragak berriz, egingo den batzar informatiboaren deialdiari adiegoteko eskatu du.

Horrela definitu ditu Bilduko zinegotziak aurreko udal taldeak 2011rako egindako aurrekontuak. "Datorren urteko aurrekontuak lantzeko, 2010eko aurrekontuen likidazioa hartu behar izan dugu erreferentzia gisa. Izan ere, 2011ko aurrekontuak errealitate oso urrun gertatzen ari baitira. Susmoa hartzen diogu, aurreko aurrekontuak egiterakoan lehenik eta behin zenbat gastatuko den begiratu izan dela eta horren arabera diru sarrerak kalkulatu direla. Hori izan daiteke hain justu urtero maileguak eskatu behar diren arrazoietako bat. Gure asmoa prozesua alderantziz egitea da: orokorrean diru sarreren aurreikuspenaren arabera gastuen aurreikuspena egitea alegia", zehaztu du Lizarragak. "Gastuen aurrekontuei dagokienean ere, azpimarragarria da gertatu dena: "Langileen soldatek %5 gutxiago gastatzea aurreikusi zuten aurrekontuetan, Madriletik eta Eusko

Jaurlaritzatik langile publikoek soladuta kopuru horretan jaisteko eman zen agindua duen haritik. Hori aurreikusi bai, baina gero, beste inon ez bezala, jaitsiera hori ez aplikatzeko erabakia hartu zuen aurreko udal taldeak. Noski, erabaki hori aurrekontuetan islatu ez zenez, desfase izugarria eman da. Kontutan izan behar dugu, pertsonalak aurrekontuaren herena eramaten duela.

Bateko eta besteko, 2011ko kontuetan aurreikusitakotik benetako errealitate saltoa handia dago. Beste mailegurik eskatu gabe aurrekontu horien likidazioa aurrera ataratzea lortuko bada, bestelako murrizketak egin direlako eta ezusteko diru sarrera bat tartean tokatu delako izango dela jakinarazi du Lizarragak. "Joxe Arregin etxe bizitza tasatuak egiteko lur-sailen salmentatik jasotako diru kopuruari esker izango da. 900.000 euro jasotzea aurreikusten zen, eta azkenik 1.440.000 euro jaso dira".

nos o comisiones" (ver tabla).

Objetivo: recortar gastos fijos

Los presupuestos del 2012 traerán consigo notables recortes. Y es que además de la gran deuda que tiene el consistorio se prevé que los ingresos que recibe el consistorio desde el fondo foral tendrán una rebaja del 5%. "Es un recorte muy importante ya que el fondo foral es el ingreso más importante del ayuntamiento", aclara Lizarraga.

El objetivo es recortar los gastos fijos, ya que albergan casi todo el presupuesto del año. "De esta manera, los recortes que se hagan en los gastos puntuales no tienen un peso considerable en el presupuesto final". Aún así, la edil ha asegurado que también están haciendo un análisis de este tipo de gastos en todas las comisiones para marcar preferencias y "eliminar gastos prescindibles".

Aunque la situación no es

buena, Lizarraga ha afirmado que se van a hacer inversiones aprovechando las ayudas económicas recibidas de diferentes instituciones. "Por ejemplo, gracias a una subvención del Gobierno Vasco, el ayuntamiento va a contratar 11 personas paradas de Zizurkil para trabajar en diferentes campos durante seis meses. De igual manera, en 2012 se va a finalizar la segunda fase de la red de saneamiento de las aguas de San Millán".

Subida de los impuestos del %2,8

En cuanto a los impuestos y las tasas, se ha aplicado la subida del IPC que es del %2,8. El criterio que se ha impuesto es el de "garantizar los derechos de los que menos tienen" De esta manera, algunos impuestos no han tenido ningún incremento, y al mismo tiempo otras tasas, que afectan a los que más tienen, han subido más del %3.

AHTren ondorio

Krisiak krisi, Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako gobernuak aurrera jarraitzen dute Abiadura Handiko trenaren lanekin. Zizurkil betirako itxuraldatuko duten lanak hastear direnean lan horiek eragingo duten suntsiketa trenbidera soilik ez dela mugatuko jakinarazi diote Zizurkilgo Udalari.

Xabier Pellejero zizurkildarra Udaleko ingurumen batzordeko kidea da, eta urte askotan AHTren gaia gertutik jarraitu du. "Zizurkilgo zatia bitan banatu dute, Zizurkil Andoain zatia dago orain esleituta, Adunibarko biaduktua jasotzen duena. Errekalde baserri paretik Adunibar aldera begiratzan badugu, alderik alde zeharkatuko du biaduktu handi batek, pareko Adunako mendian tunelean sartu arte", azaldu digu. Lau poste izango ditu biaduktu horrek, 25 metroko altuerakoak, 3 Adunibarko zelaian eta bat Adunako mendian. "Gora datorren

errepidetik 15 bat metroko altueran geratuko da. Adunibar baserria baino 30 bat metro aurrerago pasako da biaduktua, ia etxe gainean izango dute".

Bi bizitzako etxea da etorkizuna zalantzan duen Adunibar baserria. "Bizitzetako batean familia bat bizi da, Mendizabal-Jauregi familia. Eurak dira zalantzarik gabe Zizurkilen kaltetuenak. Ez dago argi zer gertatuko den etxe horrekin, salagarria da oraindik ez dietela ezer jakinarazi", dio Pellejero. Baina zizurkildar guztiok ere jasango dugu kaltea. "Ingurumen eta paisaia arloko

kalteaz gain, ez da giro izango lanak irautea aurrirakusten den lau bat urteetan Zizurkil Goiko bidean, biaduktura iritsi arte."

Errepidea, herriaren erditik

Biadukturainoko garraioa aipatu du Pellejero, izan ere, Udalak duela bi hilabete eskas jakin du AHTren lanen harira beste errepide bat eta betelana herrian bertan egiteko asmoa dagoela. "Betelana, Zizurkil Goiko irteeran, Mutio azpialdeko sakon gunean kokatzea aurrirakusten dute, orain artasorora dagoen belazean. Eta horra joateko bide bat aurrirakusten da, kamioiak eta bestelakoak ibiltzeko. Merioli azpitik hasi, hortik gora Etxe Azpikoren ondotik igaro, Etxeberretxiki eta Agerre gainekaldetik pasa eta Iruñea azpikaldetik jarraituz, Mutioko sagastia erdiz erdi igarota iritsiko litzateke bidea betelana egiteko gunera. Aipatutakoez gain, Soroluzea eta Zugastizabal etxeei ere zuzenean eragingo die errepideak, euren etxetara joateko bidea erdiz erdi zeharkatzen baitu".

Eta noski, kaltetuak, herriguneko biztanle guztiak. "Berezi ki Hernandorena kalean bizi direnei eta plazan, sakongune aldera bizi direnei eragingo die, zarata eta bestelakoenga-

tik". Datu garrantzitsu bat ere eman du Pellejero. "Errepideak 5-6 metro asfaltatu izango lituzke, autopista bat beraz, eta leku batzuetan zazpi zortzi metro ere har litzake."

Betirako uzteko asmoa

Zentzugabekeriaren gorena ordea, zera da, proiektuan ageri denez, errepide hori betirako hor uzteko asmoa dutela. "Onartezina da. Kilometro eskaseko bidea da, betelanera beste inora ez doana, eta sekulako inpakto bisuala eragingo duena", salatu du. Betelana bera ere proiektuan dagoen bezala, izugarria litzatekeela dio. "Mendi moduko bat egitea aurrirakusten dute, non eta herri kaxkoan. Hor gainera, herriko saneamendu sarea pasatzen da, eta saneamendu sare hori hor azpian geratzea onartezina da, hori etorkizunerako sekulako arazoa baita. Eta gainera, beste arazoa urarena da, hor inguruko urak biltzen dira, eta hori ere begiratzekoa izango da. Ibiurko uraren depositua ere juxtu-juxtu hortik etortzen da".

Esaldi batekin laburbildu du Pellejero egoera. "Zoritxarrez, AHT bezalako proiektutzarretan dabilzanek bulegoetan lortzen dituzte baimenak, eta ez dute behar Udalaren oniritzirik, eta ezta ere lur ja-

bortitzak

been baimenik ere. Dena alde dute”.

Udalaren jarrera

Zizurkilgo Udaletik hainbat gauza zehaztu nahi izan dituzte. Lehenengo eta behin salatu dute proiektua berandu bidali zaiela, eta espero ez ziren ezusteekin. “Ozta-ozta izan genuen denbora betelaren eta bidearen aurkako alegazioa jartzeko”, azaldu digute. Herritarrek ordea, ez zuten aukera hori ere izan. “Hori salagarria da, baita proiektu honen arduradunak kaltetuekin harremanetan ez jartzea ere. Udalaren bidez jakin dute 6 metroko errepidea izango dutela etxe ondoan”. Herritarrekin eta kaltetuekin egindako bileran, ahal den guztia egiteko asmoa azaldu zuen Udalak. Jarrita dauden alegazioak oraindik ez dituzte erantzun, baina atzera botatzen badituzte ere, gutxieneko baldintza batzuk exijitzeko asmoa du Zizurkilgo Udalak:

-Bideari dagokionez, lanak bukatu ondoren berriz desegitea. Lehen bezala ez da geldituko, baina Udalak lan egingo du lehengora hurbiltzeko.

-Zabortegia bete-lan txukun bihurtzea. Zabortegi hori herri sarreran dago, eta herriaren ikuspegi guztia hipotekaturik

dago proiektu horren baitan. Eremutik igarotzen den hodi-terria guztia ere kontuan hartu eta behar den dirua gastatuz lur sail berrira egokitzea exijituko du Udalak.

-Herrigunean jendea bizi dela kontuan hartzea. Lanerako ordutegi batzuk finkatzea.

-Adunibar baserriaren etorkizuna berehala argitzea.

Hori guztiaz hitz egiteko datozen egunetan elkartuko dira Udaleko arduradun eta teknikariak proiektuaren arduradunekin. Zizurkilgo Udalak berretsi egin nahi du AHTren aurkako jarrera irmoa. “Zizur-

kil bera proiektu honek duen eragin txikitzailearen adibidea, baina txikizio hori ahal den neurrian gutxitzeko lan egingo dugu”.

El TAV, afecciones severas en Zizurkil

Están a punto de comenzar las obras del TAV en uno de los dos tramos de Zizurkil, en el que transcurre por el caserio Adunibar. Se prevé construir un viaducto de grandes dimensiones que discurrirá desde la salida del túnel por encima del caserio Errekalde, hasta su entrada en el túnel de Aduna. Xabier Pellejero, miembro de la comisión de medioambiente, nos ha facilitado los datos. “La altitud será de unos 15 metros por encima de la carretera a Zizurkil Goia, a unos 25 del caserio Adunibar, que tendrá el viaducto casi encima”. La fami-

lia que vive en este caserio no sabe todavía cuál será su futuro. “Eso es inaceptable”, denuncia Pellejero.

Una carretera y un vertedero

Además de las infraestructuras propias del tren, los promotores de la obra tienen intención de utilizar Zizurkil como vertedero del material excavado en los túneles. Este vertedero se situaría a la entrada de Zizurkil Goia, en una hondonada justo debajo de la casa Mutio. Asimismo, se prevé construir una carretera de 6 metros de ancho para que los

camiones puedan ir al vertedero. El Gobierno municipal ha presentado sendas alegaciones a dichos proyectos y ha denunciado que se le ha informado en el último momento. Ha sido el propio Ayuntamiento quien ha tenido que informar a las personas afectadas. “Aunque rechacen las alegaciones, trabajaremos para minimizar los daños y asegurar el futuro de Zizurkil Goia”, remarcan desde el Consistorio. Los y las responsables del Ayuntamiento se reunirán en los próximos días con los promotores de la obra.

ERREPORTAIA

Uholddeen biha

8

Euriak gogoz hartu zuen azaroa eta goizaldeko ordu txikietatik nabaritu zen hori Zizurkil eta inguruetan hilaren 4an. Uraren indarraren testigu izan ziren herritarrak egun hartan eta bihamunean baita hark utzitako ondorioena ere. Kalteak Tolosaldea Garatzen erakundearen bitartez Foru Aldundira bideratu ditu Udalak eta traba garrantzitsuenak behin-behinekoz konpondu

Hainbat errekek gainezka egin zuten eta horien artean, Asteasukoak utzi zuen argazki ikusgarriena. Elbarrenako erdigunea bere egin zuen urak: Bulandegi- eta Ernio-bideak bat egiten duten biribilgune-
tik barrena, Joxe Arregi Plaza zeharkatu eta Aurrera Plazaraino iritsi zen handitutako erreka. Bidean noski, hainbat eraikineko baxu eta garajeak lokaztu eta busti zituen: Teodosio eraikina edota Urkamendi elkartearen tartearen. Aurrera eta Ugare auzoak hornitzen dituen transformazio zentroa ere urez bete eta auzootako

bizilagunak argi indarrak gabe egon ziren 20 bat orduz. Are gehiago: bere indarra modu adierazkorrean erakutsi zuen urak, erreka ondoko plataforman aparkatuta zeuden 4 auto irentsita.

Oria ibaiak eta Alkañiz erreka ere utzi zuten euren aztar-
na. Ernio Bidea 2an dagoen neurgailuaren arabera 5,3 metrora arte igo zen Oria eta Ugare auzoaren amaieran dagoen parketxoaren urperatu zuen. Olentzo inguruan, ber-
riz, Alkañiz bere bidetik at-
ra zen eta luizia eragin zuen. Akezkon ere lurra erori zen



eta menditik jeitsitako urak Muñoa auzoko zenbait eraikin eta garajeetara egin zuen bidea.

Landa eremuetan, lubiziak

Hain zuzen, landa eremuetan lubizi eta erreka txikiagoek sekulako ondorioak eragin dituzte herribideetan. Zarateko bideak kalte ugari jasan ditu. Zapegiko sarrera baino lehen

errepidea lur eta enborrez estalita gelditu zen eta Zarateko Bentara iritsi aurretik bidea puskatu egin zen, auto handientzat bide arriskutsua bihurtuz. Berehalako konponketa beharrezkoa zela-eta, Udalak esku hartu du eta jada behin-behineko irtenbidea eman zaie bi puntu hauetako trabei. Ziasoro eta Asteasuko mugan urak bidea hartu zuen, baina oraingoan hura ere bide-

ramuna

ratu da, bidea galtzeko arriskua zegoen eta.

Dena den, zenbait punturen erabateko konponketa lan nekeza izango da. Zaraten bertan, Pagamendin, sekulako lubizia izan zen baina ez da lur gaineko ur korronterik ageri eta beraz, azpikoren batek eragin zuela uste da. Iturriotzera bidean ere bidea ikaragarri estutu da. Bi kasuetan ere, alboetako malda handiek konponketak zailtzen dituzte. Gauza bera gertatzen da Saizarrera igotzen den bidean.

Landa eremuko "erreka-txoek" ere eragin dituzte ondorioak. Kasu honetan, kaltetu izan dira Ugarte Berri, Itzibar, Lepasoro, Akezko Errota eta Adunibar; azken honetan, gainera, bordaren aldeetako bat airean geratu da, azpiko lurra jausita.

Erreken inguruotako konponbideen ardura ur-agentziei dagokie eta ez Udalarik; ez bada, Lepasororen kasuan bezala, herribide bat berreskuratzeko. Bestalde, jende asko geratu da bere lur sailetara sarbiderik gabe eta ur-agentziek erantzunik

eman ezean, Udalak esku hartuko du baserritarren alde.

Kostuak

Kaltetu gehienek dute segurua eta norberak bere aldetik egin ditu dagozkion tramiteak. Segururik gabeko kasuan, Udalak Tolosaldea Garatzen erakundera bideratu ditu. "6 kaltetuk jo dute Tolosaldea Garatzenera: horietako 5, segururik gabekoak. Txostena egin du eta gero txosten hori Foru Aldundira eramango dugu", dio Joxe Mari Luengo alka-

teak. "Hilaren 7rako txostena entregatu behar da eta gero Aldundiaren erantzunari itxaron, 307/2005 dekretuaren arabera kalte-ordainak badiren jakiteko. Herribideen kasuan gauza bera, baina Udala jada hasi da beharrezko gauzak konpontzen."

Kalteak ikusita, konponketen kostua aurreikusi da eta oraindik ere zehatz-mehatz esan ezin daitekeen arren, 270.000 eurokoa izan daiteke landa eremuetako konponketen batura. Kasuotan, lurra egonkortzeak dakar lanik zail eta garestiena.

La resaca de las inundaciones

Las intensas lluvias de principios de noviembre causaron el desbordamiento de ríos y desprendimientos de tierra, dejando tras de sí desafortunadas consecuencias. La imagen más destacada la ofreció el río Asteasu, que a su paso tomó el corazón de Elbarrena y manifestó su fuerza, entre otros, «tragándose» 4 vehículos a la altura de la Papeleta del Oria. El río Oria y el Alkaiñiz también causaron desperfectos, y se vieron perjudicados de igual manera la zona de Akezko y Muñoa a causa del agua proveniente del monte.

En las zonas rurales, los desprendimientos y los riachuelos

también han dejado su huella. El sendero de Zarate ha sufrido múltiples daños. Algunos de los desperfectos han sido solventados inmediatamente por el Ayuntamiento dada su urgencia, como en el caso de los daños entre Ziasoro y Asteasu donde se ha encauzado el agua por el peligro de poder perderse el sendero. Otros puntos exigen mayor dificultad de solución, entre otras razones, por la gran pendiente que les rodea. Los riachuelos también han causado estragos; en Adunibar, incluso, uno de los bordes de la borda ha quedado suspendido en el aire, sin ningún punto de apoyo.

La Agencia de Agua es la que se responsabiliza de solucionar los problemas ocasionados alrededor de los ríos, a no ser que, como en el caso de Lepasoro, el Ayuntamiento actúe para recuperar uno de los caminos públicos afectado por las riadas o haya que facilitar el acceso de sus tierras a los baserritarras.

La mayoría de las personas perjudicadas tiene seguro y, por lo tanto, cada una de ellas ha iniciado los trámites pertinentes con su compañía. En el caso de las personas que no tienen seguro, el Ayuntamiento ha encaminado sus casos a Tolosaldea Garatzen. «En total, son 6 las personas implica-

das que han acudido a Tolosaldea Garatzen: 5 de las cuales sin seguro. Harán un informe y luego lo entregaremos a la Diputación», declara el alcalde Joxe Mari Luengo. «Tenemos que entregar el informe y esperar a la respuesta para saber si en base al decreto 307/2005 se puede obtener indemnización. Se han hecho los mismos trámites para recuperar los caminos públicos, pero mientras tanto el Ayuntamiento ha arreglado los problemas más urgentes».

Aunque no se puede determinar con exactitud, se calcula que reparar los daños sufridos en las zonas rurales rondarán los 270.000 euros.

ERREPORTAIA

Memoria historikoa

Omenaldi hunkigarria Gerra Zibileko fusilatuei

Ekaitzak omenaldia hilerritik zimiteriora mugiarazi bazuen ere, ez zuen ekitaldia zapuzterik lortu.

10



Eguraldiari aurre eginez, herritar mordoa bildu zen, ziurrenik, 36ko gudan fusilatuak izan zirenekiko zor sentimenduak bultzatuta. Biktimen senideek pasatako sufrimendua aitortzeko ere balio izan zuen ekimenak, eta baita era batera edo bestera sarraski haren biktima izan ziren guztiak gogoratzeko ere.

“Oso hunkigarria izan da”, edota “hau lehenago egin behar zen” bezalako esaldiak ibili ziren jendearen ahotan ekitaldiaren ostean. Batzuk Iriarte etxean geratu ziren Hernandorena

Kultur Taldeak prestatutako hamaiketakoaz gozatzen. Izan zen ordea, Zizurkilgo hilerrira joan zenik ere. Han zen egitekoa ekitaldia, bertan jarri baitzuten bost fusilatuak eta gerra zibilak utzitako biktima zizurkildar guztiak gogoratzeko hilarria. Dena den, zorra ez da osorik kitatu, Hernandorena Kultur Taldeko kideek azpimarratu bezala “egia jakin arren eta biktimen oroimena berreskuratu arren, oraindik ez baita justiziarik egin”.

Xumea baina duina

Musikariek eman zioten hasiera ekitaldiari. Ondoren, aurkezle lanak egin zituen Hernandorena Taldeko Joxin Azkuek hartu zuen hitza. Banan bana aipatu zituen zizurkildar fusilatuak, eta

horietako bakoitzaren historia labur kontatuz, senideak deitu zituen jendetzaren erdira. Elias Konstantzio Mendizabal, Gabino Barroso eta Jose Kruz Zuria-rrainen familiakideak bertaratu ziren. Azken horien aurrean irakurri zuten Eva Usandizaga zinegotziak eta Joxe Mari Luengo alkateak udalak onartutako adierazpena. Ondoren, aurrekoa dantzatu eta lore-sorta bana jaso zuten. Tronpeta doinu sarkorrak hartu zuen gero txanda. Bertsoek ere bere lekua izan zuten ekitaldian. Elias Konstantzio Mendizabal fusilatuaren senitartekoa den Unai Mendizabalak idatzi eta Jon Gerestak abestutako bertsoak izan ziren. Azkenean, Martxa

baten lehen notak abestuz eta luze iraun zuen txalo zaparrada batez amaitu zen ekitaldia.

Oroimenerako eta dolurako lekua

Gerra Zibilean eraildako askoren kasuan bezala, zizurkildar fusilatuen familiak ez dakite euren senidearen paraderoaren berri. Horregatik, doluaren zikloa ez da ixten, ez baitute horretarako leku fisikorik izaten. Zizurkilgo hilerrian jarritako oroitarriak hutsune hori bete nahi du. Fusilatutako zizurkildarrak eta oro har, sarraski hark utzitako biktima guztiak gogoratzeko tokia izango da. Oroimena ezinbestekoa baita, berriz ez gertatzea lortzeko.

Emotivo homenaje a los fusilados en la guerra civil

Desde la asociación Teodoro Hernandorena, se mostraron satisfechos con la participación de la gente, tanto en el homenaje como en las charlas que tuvieron lugar durante la semana.

Acto emotivo

El acto fue sencillo, pero emotivo. Se hizo mención a los cinco zizurkildarras fusilados, repasando brevemente su biografía. Posteriormente, se llamó a las

familias de los fusilados, y ante ellas, leyeron la declaración institucional la edil Eva Usandizaga y el alcalde Joxe Mari Luengo. Los bertsoes de uno de los familiares y la canción de Mikel Laboa “Martxa baten lehen notak” dieron fin al acto. Desde ese día, una lápida en el cementerio recuerda a los fusilados zurkildarras que fueron olvidados durante demasiado tiempo y, aún hoy, siguen sin justicia.

Jaioberriak eta hauen gurasoak elkartzeko gune irekia

Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean gela bat atonduko da bizitzako lehenengo hilabeteetan dauden haurrek eta hauen gurasoek elkartzeko leku egoki bat izan dezaten. Espazio berri honek, haurrak mugimendu askean hezteko aukera eman nahi du. Urtarri-laren 31tik aurrera egongo da erabilgarri gela. 0-1 urte arteko haurra duten gurasoen-tzako, edo guraso izatekotan diren guztientzako da gonbidapena.

Kultura, Euskara eta Hezkuntza batzordean sortutako ekimena da hau. Zizurkilgo guraso izan berri diren edo hilabete gutxiren buruan guraso bihurtuko diren gazte asko dago egun. Tabernak ez dira jaioberriak edukitzeko egokiak, eta herrian ez dago bestelako lekurik haurtxoak eta gurasoak elkarrekin egon eta esperientziak trukatzeko. Behar horri erantzun nahian, aipatutako batzordearen bidez Kultur Etxeko gela bat atontzeko eskatu zaio Udalari. Egia hori, gelaren egokitzapenak ez du lan handirik ez eta kosturik suposatuko. Izan ere, gune berri honen oinarrian jaioberriak mugimendu askean hezteko asmoa dago, eta heziketa pentsamolde honek

horizontalitatea proposatzen du haurraren lehenengo hilabeteetarako. Hortaz, haurrak etzanda egoteko koltxoneta batzuk ahalbidetuko dira.

Haurraren erritmoa errespetatuz

Haur bakoitza genetikoki programatuta dago jaio bezain agudo bizirauteko ezinbestekoak dituen pausoak emateko. Esate baterako, jaio bezain azkar amaren sabel gainean utziz gero, haurrak, instituboki egindako mugimenduen bidez titia aurkituko du. Aldiz, emaginak haurra eramaten badu, haur hori bere bizitzako lehenengo lorpena erdiesteko aukera ukatzen zaio. Jaio den une beretik mugimendu askea izatea eragotzi zaio. Ondorengo hilabeteetan etengabe errepikatzen da joera hori: haurrari ez zaio uzten bere garapenean hain garrantzitsuak diren lorpenak bere kabuz erdiesten. Bera bakarrik esertzeko gai izan aurretik eserrarazten ditugu helduok magalean, edo sabel gainean lehenik, lau-kankatan gero eta egitura bertikalei helduta azkenik, oinez ibiltzen ikasi aurretik ibilarazten ditugu eskutik helduta. Guzti honek, haurrari egiteko gai dena baino gehiago eskatzea

suposatzen du. Mugimendu askeak defendatzen duena, haurraren erritmoa errespetatu eta helburu guzti hauek bere kabuz lotzeko aukera ematea da. Teoria honen sortzailea Emmi Pikler pediatria izan zen. Bere ikerketen bidez ondorioztatu zuen, haurra gai dela bere motrizitate guztia, ibili artekoa, bakarrik garatzeko. Haurra, psikologikoki eta fisikoki gai denean lortuko du esertzea, lau-hankatan ibiltzea edota oinez hastea. Plikarren defendatzailea den Agnes Szanto psikomotrizista argentinarraren sonatuaren esanetan,

ez dago oreka psikologikorik oreka fisikorik gabe. Horretarako prozesu luzea egin behar da. Haurrak egun gutxirekin egiten dituen behatzen mugimenduak ez dira mugimendu soilak, bere gorputza deskubritzen ari da, eta inguruaz jabetzeko pausoak ematen. Horregatik, mugimendu askearen teoriak dio (Emmy Pikler psikologoak garatu zuen), haurraren ekintza hauei arreta eskaini behar zaiela, eta oso garrantzitsua dela haurrak gurasoekiko errekonozimendu hori sentitzea, bere buruaren eta inguruaren behaketa egi-

Un espacio abierto para los recién nacidos y sus padres

En la Casa de Cultura Atxulondo se acondicionará un aula para que los bebés y sus padres y madres tengan un espacio público adecuado. Y es que los bares no son sitios apropiados para los recién nacidos, y sus madres y padres requieren de un sitio donde puedan estar con su hijo o hija mientras comparten sus vivencias con otras personas. En esta aula se pretende impulsar el movimiento libre, teoría que fundo el pediatra Emmi Pikler. Se basa en la idea de que la

persona es capaz de desarrollar su motricidad sin intervención de las personas adultas. De esta manera, defienden que hay que dejarle al bebé moverse libremente, para que pueda desarrollar sin ayuda externa las capacidades motrices que le van a aportar el equilibrio físico y en consecuencia equilibrio emocional e psicológico. En definitiva, este espacio estará diseñado para que los bebés puedan experimentar el movimiento libre. Estará abierto a todos los niños y las niñas de 0 a 1 año y sus padres y madres. No es necesario inscribirse, la participación será libre. El aula permanecerá abierta los

B



Zizurkilgo Udala

Plaza Berri Aldizkaria
Herritarren Parte Hartze
eta Komunikazio Batzordea.

Lege-gordailua:
55-1118-2011

Harremanetarako:
plazaberri.zizurkil@gmail.com
www.zizurkil.com

Zizurkilgo Udala,
Teodoro Hernandorena 6,
20.159 Zizurkil.
Tel. 943-691012
Fax 943-693200.

Udal Bulegoak, Aurrera Plaza 3,
20.159 Zizurkil.
Harrera Orokorra
Tel. 943-693066
Kultura, Euskara, Hezkuntza,
Gazteria y Kirola Saila
Tel. 943692495
Fax 943-693674.

HERRITARREN TXOKOA

JOSEBA OTAEGI



“Datorren urterako helburu polita litzateke Gipuzkoako txapelketa lehiatzea”

Bertsoen errimetatik aizkora kolpeetara

Gipuzkoako azpitxapeldun, Euskal Herrikoan lehen mailan, 4 apustutik 3 irabaziak, aizkora munduan sartu zinenean hau esan bali-zute...

Orduan sinatuko nuen azkar asko. Nik hasieran uste baino maila hobea lortu dut. Hasieran probatzeko hasi nintzen, erdi hooby moduan, gerora gazteen Urrezko Aizkora parte hartu nuen baina esango nuke 2007an izan zela aldaketa ekarri zuen inflexio puntua. Orduan belaunetik operatu nintzen, eta hor erabakia hartu beharra zegoen,

gogor segi edo utzi. Aurrera jarraitzea erabaki nuen, Batis Kortajarena prestatzaile hartu eta lan luzeagoetarako entrenatzen hasi nintzen. Orduan hasi zen aldaketa.

Zein izan da zure ibilbidean poz handiena eman dizun lorpena?

2007an bertan, Re-kondori apustua irabazi nionekoa. Lehen apustua zen, eta modu berezian gogoratzen dut. 3. mailako txapeldun geratu nintzenekoa ere izugarria izan zen. Hasierako lorpenek egiten dizute ilusio gehien.

Azken probari begiraruta, zerk huts egin zuen Zalduaren aurkako apustuan?

Buruak. Prestakuntza aldetik ez zegoen inongo akatsik, oso ondo prestatuta nengoen, inoiz ez bezala. Ez barenengoen prestatuta lanak ez nituen bukatu ere egingo, indarka aritu bainintzen.

Hala ere, txapelketa ofizialetan, 2011 ez da urte txarra izan, ezta?

Ez, baina guztia apustura bideratuta joan da. Gipuzkoako txapelketa apusturako test bezala

hartu genuen eta bigarren geratu nintzen. Lan horrekin gustora geratu nintzen. Euskal Herriko kanporaketan oster, aste horretan bertan apusturako lanak egiten aritu ostean plazaratu nintzen, eta txispa falta nuela sentitu nuen.

Hurrengo urtera begira, zer eskatuko diozu olentzerori?

Lesiorik ez izatea. Hori da eskaera nagusia. Handik aurrerakoa nire esku egongo da. Datorren urterako helburu polita Gipuzkoako txapelketa izan liteke, aurren hor ibili nintzen eta horretarako prestatuta ea zer egiteko gai naitzen.

Esaiguzu...

Ume garaiko Zizurkilez galdetuko banizu...

Irudi bat etortzen zait burura: Iriarte atzeko txatarria, gu eskolan eta Don Inazio apaiza paseoan liburua irakurtzen.

Zizurkilgo txoko kut-tun bat

Eskaletzuko gaina. Sarri joan naiz azkenaldian eta paraje ederra da, sekulako ikuspegiarekin.

Herriko pertsonaia bat

Pedro Mari Otaño. Gu ere bertotan ibiliak gara eta berak arlo horretan egindako ekarpena handia izan da.

Zer dago soberan?

Soberan ezer ez, denentzako lekua bada.

Eta zer faltan?

Gazteentzako etxebizitzak, bereziki Zizurkil goian. Aspaldian ez da ezer egin.

